

**Maiatzaren Lehena, langileen nazioarteko eguna
2011an, lehenengo aldiz, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean
emakumeek gizonek baino okupazio tasa altuagoa dute**

Euskadin, joan den urtean, lan egin nahi zuten gazteen %81ak enplegua izan zuen.

Maiatzaren 1a langileen nazioarteko eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enpleguaren azterketa aurkezten du, Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA) oinarri hartuz.

2011an 16 eta 29 urte bitartekoen okupazio tasa %43,7koa izan da. Emakumeen artean %44,7koa; gizonen artean, ostera, %42,8koa.


Kopuru absolutuetan 132.600 gazte okupatu daude: 67.900 gizon eta 64.700 emakume. Okupatuta dagoen poblazioaren kalkulua poblazio aktiboarekiko kalkulatzen da, eta hori emakumeen artean txikiagoa dela kontutan izanda zer ikus dezakegu: lan egin nahi duten emakumeen artean %83a lanean dagoela. Gizonen artean %79a dira.

2010etik 2011ra gazteen enpleguaren tasak 8 hamarreneko galera izan du, 2009tik 2010era eta 2008tik 2009ra izandakoak baino txikiagoa (tarte horietan beherakada ehuneko 6 puntukoa izan zen eta). Duda barik, krisiaren hasierarekin alderatuz, gazteen enpleguaren galtzea moteldu egin da.

Gizonen artean enpleguen murrizketa bortitzagoa izan da (%1,8) emakumeen artean baino (%0,3).

2010etik 2011ra gizon gazteen artean 12.400 enplegu galdu dira. Tarte horretan 7.700 emakume enplegatu gutxiago daude.

**Okupazio tasaren bilakaera, guztira eta sexuaren arabera
2005-2011 (%)**




Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustateko datuetatik (BJA) egina

Lurralde historikoen azterketara jotzen badugu honako hau ikus dezakegu: Arabak okupazio tasa altuena du, %48, Gipuzkoak %46,6 eta Bizkaiak %40,8.

Bilakaerari dagokionez, Bizkaiak ia %3a galdu du azken urtean, Arabak eta Gipuzkoak gora egin duten bitartean, %3,5 eta %0,5 hurrenez hurren.

Kopuru absolutuetan Arabak 200 lagun okupatuaren gorakada izan du 2010ean. Bizkaiak, ostera, 14.700 gazte enplegu galdu ditu eta Gipuzkoak 5.300.

Okupazio tasaren bilakaera, guztira eta lurralde historikoaren arabera, 2005-2011 (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eustateko datuetatik (BJA) egina

Datuok eskuragarri daude [Gazteen Euskal Behatokiako Adierazleen Sistemari](#).

Jarria gaitzazu gizarte-sareetan!

